


# NI ERE UME BIHURTU NINTZEN ...

Ikerne Zarate Garziarena



*Asko eta asko dira gure herriko jaietan antolatzen diren ekitaldiak, baina hauen artean batzuk xarma berezia daukate eta hor aurkituko dugu Landare Elkartek 3. urtez antolatuko duen erraldoi eta buruhaundien konpartsa. Aurten berriro ere heldu zein gazteei haurtzaroko garai zoragarriak ekarriko dizkigu gogora eta oroimen goxoei bihotza zabalduko digute igarotako garai haiek errepikatu nahian. Haurrek berriz, begiak zabal-zabal gozatuko dute, eta eurak ikusten, une batez ume bihurtuko gara gu.*

*Ekitaldi honetaz hitz egiteko egokiena berriz, Jose Luis Insausti Urigoitia dugu, ideia bera, Jose Luisek mamitu eta gauzatu zuelako.*

– Noiz eta nola bururatu zitzaizun halako ekitaldi bat antolatu zitekela herrian?

– Landare Elkartek bere ibilbidea duela 17 urte hasi zuenetik, ekitaldi ezberdinak antolatu ditu, beti ere helburu zehatz eta argi batekin, gure herriaren ohiturak eta kultura orokorrean mantendu eta indartzearen.

17 urte luze hauetan beraz gauza ugari antolatu ditugu. Kantaldiak hasi ginen eta 89. urtean helburu zehatz bat finkatu genuen Euskal Herriko herrialde ezberdinetako ohiturak, kultura eta gastronomia erakutsi nahian eta zazpi urtez ekitaldi ezberdinak antolatu ditugu honen inguruan. Gure herritik, Lapurdi, Zuberoa, Behenafarroa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoa noski pasa dira eta bakoitza bereizten dituen ohiturak erakutsi dizkigute oreretarrei.

95. urtean Zazpiak Bat, Euskal Herriko zazpi herrialdeei eskeinitako Euskal Jaia antolatzen hasi ginen.

1998. urteko urtarrilean berriz, Landare Elkarteko zuzendaritzan biltzen hasi ginen Madalenetako ekitaldiak prestatu asmoz. Bertan, ziklo baten amaiera iritsi eta beste zerbaiti hasera eman behar geniola ikusi genuen.

Orduan, nik erraldoi eta buruhaundien konpartsen topagunea antolatzea proposatu nuen. Betidanik atsegin izan ditut horrelakoak eta gainera ideiak oso harre-ra ona izan zuen nire kideen artean. Ideia mahai gainean zegoen eta horri heldu eta lanean hasi ginen. Ideia zena gauzatzen hasi nintzen.

Gure asmoa Euskal Herri osoko konpartsek parte hartzea bazen ere, Landare Elkartek betidanik ospatu ditu bere ekitaldiak Uztailearen 23an eta astegun zuri bat zenez ezinezkoa izan zen herrialde ezberdinetako konpartsak honaino hurbiltzea. Beraz, lehenengo urtean Gipuzkoako herrietako konpartsaek parte hartu zuten, Donostia, Lezo, Pasaia, Hondarribia eta Oretetako konpartsek hain zuzen ere.

*– Edizio honekin 3. urtea beteko du ekitaldi honek eta balantze bat egingo zenuten hasiera hasieratik, beraz, zein harrera izan du oreretarren artean?*

– Ospatu zen lehenengo egun hura benetan interesgarria izan zen. Izan ere, Gipuzkoako herri ezberdinetako partaideez gain, buruhaundiak dituzten Oreretako auzo guztiei luzatu genien parte hartzeko gonbidapena, eta izugarria izan zen. Guztira 60 batek parte hartu zuten. Gainera ekitaldia oso ikusgarria da eta jendeak oso harrera ona eman dio bi urte hauetan. Lehenengo urtean izandako arrakastak bultzatu gintuen hurrengo urteetan ekitaldi hau errepikatuz.

Iazkoa ere, arrakastatsua izan zen oso, eta Irun, Hernani., Andoain, Zarautz eta Oreretako konpartsak izan genituen.

*– Edozein ekitaldi antolatzeak bere zailtasunak ditu beti. Erraldoi eta buruhaundien konpartsa hau herrira ekartzeko zein lan suposatzen du?*

Egia da edozein ekitaldi antolatzeak lana ematen duela, eta batzuk beste batzuk baina zailtasun haundiagoa daukate antolaketari dagokionean. Konpartsen ekitaldi honetan zailena euskal herrialde guztien presentzia bermatzea da.

Lehen esan dudan bezalaxe, guk egun bat daukagu Madalen jaien barruan gure ekitaldiak antolatzeko, eta egun hori ez bada jai eguna oso zaila da Gipuzkoa ez den gainontzeko herrialdeetako konpartsek parte hartzea. Horretaz aparte urte bete aurretik hasi behar duzu kontaktoak egiten.

Zaila bada ere, konpartsetan dabilen jendeak oso gustora egiten du eta prestotasun haundia erakusten du halako ekitaldietan parte hartzeko, beraz atsegina da.

Bestalde ezin ahaztu daiteke Oreretarren lortzen dugun harrera maila eta hori lan guztiak ordaintzen dituen saria da, satisfakzioaren saria.

*– Landare Elkarreak antolatu dituen ekitaldi guztiak izan dira Euskal kultura eta ohiturak bermatu, indartu eta herriratzeko bidea, baina zer aportazio dakarkio buru haundi eta erraldoien jaialdi koloretso honek Oreretako herriari?*

Zerbait berria egiten hasten zaren guztietan bezalaxe, lehenengo Erraldoi eta Buru haundien konpartsen topagunea egin genuen hura reto bat izan zen guretzat. Ez genekien herriak nola hartuko zuen, baina beste herri askotan gertatzen zena ikusita arrakastatsua izan litekela ulertu genuen.

Haurrentzat irriki, poza eta neurri batean urduritasunaren sinonimo da ekitaldi hau. Gazte eta helduentzat berriz haurtzaroko garaia gogora ekartzeko aitzakia. Erraldoi eta buru haundiek nostalgia eta bizitasuna

batzen dituzte, eta edozein moda baina indartsuagoak dira, denok bizi izan dugulako.

Gezurra badirudi ere Teknologiaren aro honetan Erraldoiak eta buru haundiak bizirik diraute, ez dago hauek ezagutzen ez dituen haurrik. Nork ez du buru haundien aurretik korri egin bere eskuetatik ihesi egin nahian iraintzen zituen bitartean?

Beraz, herri guztietako jaietan erabat erroturik dagoen ikuskizuna aportatzen diogu herriari jai honen bidez.

*– Noiz arte izango dugu ekitaldi honekin, erraldoi eta buru haundien konpartsen topagunearekin gozatzeko aukera?*

3. edizio hau ezberdina izango da, izan ere, aurtengo edizioan uztailaren 23 a igandea da, jai eguna, eta hala izanik gure hasierako gogoia bete ahal izango dugu. Aurtengoan lortu dugu Gipuzkoatik kanpoko beste konpartsak ekartzea. Aurtengo honetan jai eguna zentralizatu egingo dugu nolabait, eta aukera paregabe hau erabiliko dugu Landare Elkartekook Madalenetan antolatzailer bezala ekitaldia amaitutzat emateko.

Uste dugu jaialdi hau udan eta Madalenetako egitarautik at antolatu daitekeen ekitaldia dela, data bat bilatu, jai eguna dena, eta hor mantendu. Horrela, udala parte-hartzaile aktiboa bilakatu zitekeen beste herritako udalek egiten duten modura Erraldoi eta Buruhaundien konpartsekin.

Ekitaldiaren kostea merketu zitekeen horrela, betiere udalak konpartsen elkartrukaketarako ateak zabalduko balitu.

Halere, badirudi gaur egungo Kultura lehendakariak horren inguruko postura malgoago bat erakusten duela, beraz espero dugu aurtengo konpartsen topagune honekin kontutan hartu eta aukera hori aztertzea.

Izan ere, aurtengo edizioko kontratazio gasteak 1.425.000 pezetatakoak izango dira, eta elkartrukaketaren kasuan, udalak erraldoi eta buruhaundien konpartsa entidade zehatz batetako kideei eskeintzea litzateke eta hauek beste herrietako konpartsekin harremanetan jarriko liriteke. Udalak soilik bazkaria eta garraio gastuei aurre egin beharko zielarik. Beraz espero dugu aukera hau aztertzea.

*– Aurtengo hau azkenekoa bada Landare Elkarrearen antolakuntzarekin, zerbait berezia antolatuko zenuten ezta?*

Bai, aurtengo honekin amaiera emango diogu Erraldoi eta Buru Haundien konpartsen topaguneari eta argi dago zerbait berezia antolatu nahi izan dugula.

Uztailaren 23a igandea izanik aukera eman digu Gipuzkoatik kanpoko konpartsak ekartzeko.

Aurtengo edizioan, Berriozar Nafarroatik, Mairuek Bilbotik, Urretxu, Hondarribia, Oiartzun, Andoain Gipuzkoatik eta noski Oreretako konpartsek parte hartuko dute.

Beste urteetan bezalaxe txistulari eta dultzaineroek lagundurik herriko kaleak alaituko dituzte.

Guztira 25 erraldoi eta 20 buruhaundi ibiliko dira herriko kaleetatik.

Pertsonai hauen aberastasun sinboliko eta festiboa mantendu eta bide batez oraindik existitzen diren figura hauek zaintzera animatu nahi ditut, eta baita galdutako konpartsak berreskuratu edo berriak sortzera herri guztietan Erraldoi eta Buruhaundiak dantzatu ditzaten.

Guk antolatuko dugun azken edizioa denez, Oreretar guztiak animatu nahi ditut ikuskizun zoragarri, koloretsu eta alai honekin gozatu eta zergaitik ez, une batez ume bihurtzeko.

Aurtengo honetan beraz, aukera paregabea izango dugu aurreko bi edizioetan bezalaxe Erraldoi eta Buruhaundien konpartsekin gozatzeko.

Gure baserritar bikote erraldoiak txikiak utziko ditu kaleetako etxeak eta pausu arin baino zuhurrez dantzatuko du txistu eta dultzainaren doinuei jarraikiz.

Bertan izango dira ere Landarbasoko haitzuloetako ustezko biztanle batzuk itxuratzen dituzten buruhaundiak. Bi ehiztariak, Inozoa eta Astakiloa, Intxisua, Emakume zaharra eta amatasuna sinbolizatzen duen Emakumea, beste herrietatik etorriko direnekin batera.

Aprobetxatu dezagun ba, Landare elkarteak eskainiko digun aukera:

Berreskuratu ditzagun ume garaiko gogoak une batez eta gozatu dezagun, haurrak izango garen ez, oroitzapenari mugarik jarri gabe.

## KULTURAREN SUSTATZAILE

*Asko dira zorionez gure herriaren alde, gure kultura eta ohiturak sustatu eta bizirik mantentzeko lanean diharduten oreretarrak. Eta borondate on eta helburu argiekin lan egiten duten horien guztien artean dugu Jose Luis Insausti. Aski ezaguna, Madalen kalean jaiotako gizon honek urte anitz eman dizkio gure herria, gure Oreretaren aldeko lanari. Hazia landatu eta Landare bilakatuz oreretar guztiek hartu ahal izan dugu uzta aberats eta emankorra.*

*Haur eta gazte garaian futbolari izan genuen, Ondarra Elkartearen sortzaileetako bat, Aurreku txapelketa, futbol txapelketa eta herri kirolen antolatzaile, Agustinetako auzo elkartean tanborrada eta jaien antolatzaile, Landare Elkartearen sortzaileetako bat ere, Talo Eguna, sagardo Eguna, Marmitako Eguna eta beste askotan laguntzaile eta antolatzaile. 8 urtez gure herriko zinegotzi eta ziu-rrerrik ahaztu ditudan beste asko... Zerrenda luze bezain aberasgarria.*

*Baina ez da hemen bukatzen 98. Urtean Landare Elkartearekin Erraldoi eta Buruhaundien konpartsen topagunearen bultzatzaile eta antolatzailea izan bait dugu.*

*Aurtengo honetan, berriro ere izango dugu ekitaldi honetaz gozatzeko aukera, gure kaleetatik haurtzaroko oroitzapen goxoak gogora ekarriko dizkigute. Hau ordea izango da azken urtea, baina bihotzez espero dugu hurrengo Madalenetarako beste ekitaldi berri batekin izango ditugula oreretarren gozamenarako.*

*Eskertzeko modurik onena benetan gure herriaren alde egindako lana kontutan hartzea da. Eskerrikasko Jose Luis eta eskerrik asko Landare elkarte eta zuen haziak fruitu emankorra izan beza.*